

6 mantangorri



AZOKA



LIBURUA

Izenburua: 'Magia trukurik onenak'. **Egilea:**Hainbaten artean. **Ilustratzailea:** Hans Geel.**Adina:** 9 urtetik gorakoentzat. **Orrialde kopurua:**96 orrialde, argazkiz beteak. **Argitaletxea:** TTARTTALO.

Itziar Irastorza

TTARTTALO ARGITALETXEO ARGITARATZAILEA

«Ikusleak txundituta uzteko modukoak dira truko denak»

M agiak badu zerbait berzia, haur zein heldu aho zabalik uzteko gaitasun miresgarria. Familiarian zein lagun artean, modu erraz eta arinean egiteko berrogei trikimailu aurkezten dira liburu honetan. Erabiltzen diren materialak: denon eskura dauden objektuak. Pausoz pauso eta argazki bidez ematen dira azalpenak, mago aditu eta ez hain adituek erraz egin ditzaten trukoak. Berez, truko errazak dira, simpleak, baina ikusleak aho zabalik uzteko modukoak dira denak.

Liburu magikoak dugu, ezta? Magia trikimailuak erakusten dituenez...

Magia egitea magiko da, eta gaza-

tetxoei magia egiten ikasteko eta gozatzeko behar dituzten azalpenak eta adibideak era samurrean eta ulergarrian ematen dizkie liburu honek. Horretarako, testu argiak eta zehatzak erabiltzen dira, batez, eta ariketa bakoitzaz pausoz pauso nola egin behar den erakussten duten argazkiak, bestetik.

Hainbat ataletan banatuta daude trukoak. Zenbat, denera?

Guztira 40 truko dira, lau ataletan banatuta: kartekin egitekoak, txanpon eta billeteekin, objektu arruntekin eta ilusionismo trukoak. Truko batzuk prestaketa handiagoa behar dute, eta, beste batzuk, aldiz, bat-batean egin daitezke. Hori bai, den-denak egiteko

errazak dira, eta ikusleak txundituta uzteko modukoak.

Pausoz pauso eta argazki bidez aurkezten dira trikimailuak, ezta?

Magia ariketa bakoitzak bi orrialde hartzen ditu. Testuaren bidez trukoak zertan datzan azaltzen da. Ondoren, trukoak egiteko eman behar diren pausoak deskribatzen dira, banan-banan. Informazio hori guztia koloretako argazki argiekin uztartzen da.

Edonork egiteko modukoak al dira erakusten diren trukoak?

8-9 urtetik gorako edozeinek egin ditzakeen trukoak dira. Magia liburu honek tri-

kimailu errazak eta prestakuntza handirik behar ez dutenak aurkezten ditu. Beraz, praktika pixka bat eta gogoa nahikoak izango dira jendauurrean benetako mago baten plantak hartzeko eta ikusleak magiarekin indarrarekin zeharo lurratuta uzteko.

Ez da aparteko materialik behar proposatzen diren trukoak egiteko, ezta? Zein material erabiltzen dira?

Erabiltzen diren objektuak oso arruntak dira, gure etxearen erraz topatuko ditugun gauzak, alegia: kartak, txanponak eta billeteak, sokak, aldizkariak, edalontziak, arkatzak, pospoloak... Baino materialaz gain, mago on bat izateko ezinbestekoak diren beste osagai batzuk aipatzen dira liburan: batetik, ikusleen arreta desbideratzeko berriketa erabiltzea, magoak egiten dituen mugimendu sekretuak ikus ez ditzaten. Eta bestetik, trikimailua egin aurretik hitz magikoak esatea.

Etorkizuneko magoentzako liburua izan edo ez, liburua entretenigarria behintzat bada.

Liburu jostagarria da guztiz, bakarra zein taldean jolasteko balio du, eta gaztetxoei ondo pasatzeko aukera polita eskaintzen die: gauzak agerrarazi eta desagerrarazi, objektu batzuk besteen barruan sartu, materialak eta baita gizakien gorputza bera ere zeharkatu, objektuek hegazkena egin edo ariean esekita egotea lortu... Horrez gain, pazientzia, trebetasuna, arreta eta beste jarrera on batzuk lantzeko ere baliagarria izan daiteke.

Euskaraz magia trukoak erakusten dituen liburu gutxi daude, baten bat baldin badago.

Nik dakidanez, ez zegoen gure merkatuan magia libururik euskaraz. Horretaz jabetuta eta kontuan izanda magiak sortzen duen era-kargarritasuna, apropoa iruditu zitzaigun hain entretenigarria eta liluragarria den praktika berezi honi buruzko liburu bat argitaratzea gaztetxoentzat.

